

ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

ESP.	2016IPLE0001
ATALA.	IDAZKARITZA
GAIA	BATZORDE KUDEATZAILEAREN OHIKO BILKURA

2016-02-15ko EZOHIKO BATZORDE KUDEATZAILEAREN BILKURA

Albizturren, 2016eko OTSAILAREN 15an, arratsaldeko 19:00etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, Batzorde Kudeatzailearen ezohiko batzarra egin da, Lehendakari Carlos Ugartemendia jauna duela.

BERTARATUAK:

- Carlos Ugartemendia Leunda
- M^a del Carmen Dorronsoro Uranga
- M^a Isabel Machinandiarena Arrospide
- Aitziber Orbegozo Arrospide
- Jose Javier Maiza Aizcorbe

Udaleko idazkari kontu-hartzailea, Lierni Muñoa Salaverria aritu da idazkari moduan.

AZTERGAIK

1. AURREKO AKTEN ONARPENA
2. 2015EKO BIZTANLE KOPURU PROPOSAMENA
3. ORDENANTZA FISKAL ALDAKETA ETA OBRA LIZENTZIEN ORDENANTZA ALDAKETA
4. UDALITZ EUDEL PROPOSAMENA
5. GALDERA ERREGUAK

1. AURREKO AKTAK ONARPENA


2015-12-18ko akta aho batez onartu zen.

2. 2015EKO BIZTANLE KOPURU PROPOSAMENA

Batzorde kudeatzaileko bokalek aho batez honakoa erabaki dute:

Lehen.- 2016/01/01eko Albizturko biztanle kopuru proposamena 330 biztanletan ezartzea.

Bigarrena.- INEri jakinaraztea



ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

3. ORDENANTZA FISKAL ALDAKETA ETA OBRA LIZENTZIEN ORDENANTZA ALDAKETA

Batzorde kudeatzaileko bokalek aho batez honakoa erabaki dute:

Lehena.- 2016ko ordenantza fiskalak aldatzea, zehazki obra txikien tasari dagokion erreferentzia kenduz.

Bigarrena.- Obra lizentzien ordenantzaren 6. eta 7. artikulua ezabatzea, 5. Artikuluan gehituz aurkeztu beharko den aurrekontuaren arabera burutuko dela likidazioa.

Hirugarrena.- Gaon argitaratzea 30 eguneko epea ezarriaz alegazioak jasotzeko. Halakorik izan ezean behin betiko izaera izango du bestelako onarpenik gabe.

4. UDALITZ EUDEL PROPOSAMENA

Batzorde kudeatzaileko bokalek aho batez honakoa erabaki dute:

LEHENA.- UDALHITZ negoziazio kolektiboari buruz EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarreak 2015-12-10ean emandako Gomendioari atxikitzea erabaki duela, honako zehaztasunekin:

1.- 2015ean %0,6ko FUNTSA ZUZKITZEA MODERNIZAZIORAKO ETA PRODUKTIBITATERAKO Ekitaldi honetan ahalegin berezia egin denez eta konpromiso publikoak bete direnez zerbitzugintza publikoa modernizatzeko eta arrazionalizatzeko eta erakundearen produktibitatea hobetzeko, alkatetza dekretuz ezarriko den banaketa pertsonalaren arabera aipatu gehieneko kopuruarekin.

2.- 2016ko EKITALDIAN ORDAINSARIA %1 GEHITZEA 2015eko abenduaren 31n indarrean daudenen aldean. Horrela, erkaketako bi epealdietarako homogeneousutasuna lortuko litzateke langileen kopuruari eta antzinatasunari begira, 2016ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean zehaztutako aukera kontuan hartuta.

3.- EUDELI JAKINARAZTEA

5. GALDERA ERREGUAK

Era berean, 2015eko 101 eta 103 eta 2016ko 1 eta 14 bitarteko dekretuen berri eman da.

Osoko bilkura, 19:40etan eman du amaitutzat Batzorde Kudeatzaileko Lehendakariak eta bertan azaldutakoa jasoa gera dadin honakoa sinatzen dut.

Albizturren, 2016ko otsailaren 16an



ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

Lierni Muñoa Salaverria
Idazkari kontu-hartzailea